



Espainiako Gobernuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen.

Errege Dekretu horretan hartzen ziren neurrien artean, aurrez aurreko hezkuntza-jarduera etetea zegoen, eta, ondorioz, adingabeak ezin ziren ikastetxeetara joan.

Era berean, Justizia Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lan eta Justizia Sailaren ebazpen batzuen bidez, Justizia Administrazioan funtsezkoak diren zerbitzuak ezarri ziren, bai eta zerbitzu horiek eman behar zituzten langileak ere.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langile batzuek ezin izan zuten beren familia- eta lan-bizitza bateragarri egin.

Hori saihesteko, hainbat neurri zehaztu ziren hala Justizia Ministerioko Justizia Zerbitzu Publikoaren Berrikuntza eta Kalitaterako idazkari nagusiaren 2020ko maiatzaren 11ko Ebazpenaren bidez -Justizia Administrazioaren letraduei, kidego orokor eta bereziei eta kobid 19.aren ondorioz transferitu gabeko gainerako langileei dagokienez-, nola Justizia Administrazioko zuzendariaren 2020ko martxoaren 13ko Ebazpenaren bidez - Euskal Autonomia Erkidegoan justizia-administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioei dagokienez-. Bestek beste zehazten zen langileren batek baldin eta bere ardurapean adingabeak bazituen eta ikastetxeen itxierak eragiten bazien, lanaldia malgutzeko aukera ematen zitzaion, indarrean dagoen araudiak ezarritako mugak bete gabe, eta, ezinbestekoa izanez gero, langilea bere etxean egon ahalko zen, eta lanpostura erabat edo partzialki ez joatea nahitaezko betebeharrak batzuetan parekoa izango zen.

Une honetan, pandemiaren bilakaera ikusita, ohiko jarduerara pixkanaka itzultzen hasi nahi da bulego desberdinetan, bulego judizial eta fiskaletan eta Auzitegi Medikuntzako Euskal



Erakundean. Hori dela eta, seme-alaba adingabeak zaintzeko betebeharrak saihestezinagatik baimena eskatu zuten langileek, adierazten etxean ez zegoela adingabeen ardura har zezakeen pertsona heldurik, eta kontuan hartuta aipatutako zenbait organo eta bulegotan eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundean arratsaldeko lan-txandak ezar daitezkeela, baimen horri eusteko agiri hauek bidali beharko dituzte **maiatzaren 15a baino lehen**:

- Elkarbizitza-agiria.
- Euren etxean bizi diren gainerako helduek justifikatu beharko dute haien lan ordutegia. Horretarako, lan egiten duten (edo zerbitzuak ematen dituzten) enpresaren edo erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, lan ordutegiak adierazita.

Dokumentazio hori posta elektronikoa honetara bidali beharko da: [permisos-extra@euskadi.eus](mailto:permisos-extra@euskadi.eus)

Adierazitako dokumentazioa emandako epean bidaltzen ez bada, letraduaren eskura daudela ulertuko da, lanpostura joateko, hala eskatzen zaienean.

Adeitasunez,

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 7a



María Isabel Gabriel Bellido

LAN ETA JUSTIZIA SAILA  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y JUSTICIA

**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**